

KULTURA - ELIZA: EUSKARA

Kultura, bere esannahi zabalenean, edozein giza lorpen material nahiz izpiritual izan daiteke. Gizakiaren lana da: bere izaeran eta bizikeran.

Azken aldi honetan, gizakiak gizartean bizitzeko duen eratzat ere hartzen da kultura. Gizartean, kultura, elkar aurkitze izpirituala da beti... Kultura gizakiaren baitan, haren osotasunean, haren alde fisikoan, psikikoan nahiz moralean kokatzen den ondasuna da; beraz, balio eta esannahi multzoa izan ohi ditu. Jakina, balio horiek zer konkretu batzutan gauzatzen dira, esaterako, ohitura eta filosofian, lan eta erakundeetan eta bereziki *hizkuntzan*, eta guztia integratzeko balio duen *erlijioan*, *zer esanik ere ez*.

Historian zehar kultura ugari sortu dira. Bakoitza, hautatutako bizitzak eta hura bizi izateko erak mugaturik.

Erljioak lotura estu-estua du *kulturarekin*. Esannahi zabalean, erlijioa ere kulturaren esparruan sartzen da. Erljioa beti izan da kultura desberdinentzat lur emankorra; areago oraindik, kulturei halako trszendentzi kutsua eta indar aparta ematen die.

Erdi Aroak kristau erlijioak hezur-mamitu eta ekarritako kultura bizi izan zuen. Baina lotura finkoa hau hautsi egin zen geroago.

Gaur egun euskal kulturaz ari garenean, Euskal Herriko lurraldera mugatzen gara, beronen izaera eta pentsaeraz eta kultura honen osagairik bereziena den euskal hizkuntzaz, euskaraz.

Horregatik, Elizaren jokaera aztertu behar da, orokorki euskal kulturarekiko eta bereziki euskararekiko; euskara, literatura eta zientzia aldetik ikusirik nahiz Elizak bere bizitzan egin izan duen euskararen erabileraren aldetik.

a. Kultura - Euskal kultura

1. Gogorakizun orokorrak eta lan batzu

Askok hain gartsuki maitatu eta beste askok amorruz gorrotatu duten euskal kultura, bere argi-ilun eta kontraesan eta guzti, historia aberatsekoa da benetan; horregatik hitz gutxitan hura laburbiltzea ezinezkoa da, eta ez da hori nire asmoa. Azken aldi honetan, euskal kulturaz orokorki, hainbat lan agertu izan dira, baina beti kultura honen agerpenik tinkoena gaitzat harturik, euskara.

Kultura euskararekin erlazioan aztertu ohi denean, maiz nabari izaten da planteamendu zientifiko seriorik eza, eta gai historikoak politizatze joera. Gai honetaz argitaratu den azken urteotako lanean, J. Intxaustik ongi dio Elizen / eliztarren euskararekiko historia, hizkuntzen historia sozialaren barnean ulertu beharko litzatekeela eta alde horretatik oraindik ikerketa asko dagoela egiteko.

Elizaz hitz egiten denean, onerako baino gehiago, txarrerako hitz egiten da; hau da, zenbait datu testuingurutik aterata, historiaren arlo batzutan euskararen kaltetan dabilen motoretzat hartu izan da, Eliza bera bizi eta dabilen inguru sozio-politiko-kulturala kontutan izan gabe; erromatarren garaian, adibidez, Elizak erromatar kultura bereganatzea, Herria edo gizarte zibila erromatar bihurtzearen ondorioa baizik ez zen izan. Geroago, bi kultura indartsuren azpian ito beharrean dugu euskal kultura: espainola eta frantsesa; baina hauen buruzagi sozio-kultura-

lak dira Euskal Herriko bizitza sozio-kulturala, eta hein batez baita Elizakoa ere, baterantz nahiz besterantz erabakitzen dutenak; Elizak ere badu zerikusirik, baina gizarte zibila da guzti horren motorea eta Elizaren buruak ere Espainia eta Frantziako buruzagi sozio-politikoek ezarriak izan ziren euren lekuetan. Horixe gertatu zen, esaterako, 1936.eko anaiarteko gerratearen ondoren; orduan Espainiako gizarte kulturalak triskantzak egin zituen Euskal Herrian; eta Elizaren erakunde batzuk, adibidez, eskolek, estatuaren esanera, kultura arrotza zabaltzen eta bertokoa zapaltzen laguntza handia eman diote hari; baina ez da ahaztu behar, gainerako gizartea bezala, Eliza ere zapalduzik zegoela eta Euskal Herriko beste erakunde batzuren antzera, Elizaren erakundeak ere, diktaduraren aurrean makurtzera derrigortzen zituztela.

Eta egoera hau kontutan izanik ere, apaiz guztiak ez dira berdinak, ezta Euskal Herriko pertsona eta erlijioso-ordena guztietakoak ere historian zehar. Elizak edo Elizako jendeek euskal kultura eta euskarari begira izan duten jokaeraren historiak argi eta ilununeak ditu, eta, beraz, hain arazo korapilatsua izanik, seriotasun zientifiko handia behar da hori ongi aztertu ahal izateko. Hala ere, orohar, zientzilari eta hizkuntzalariek aho batez aitortzen dute, euskararen iraupena batez ere Elizari zor zaiola.

Arestian aipaturiko J. Intxaustiren laburpen historiografikoaren aurretik, beste lan batzu ere argitaratu izan dira, gehienak azkenengo hamarkada hauek aztergai dituztelarik.

2. Eliz gaietatik at, elizgizonek egindako lanei buruzko berriak

Elizgizonek historian zehar burutu duten kultur ekintza handia izan da benetan, baita eliz gaietatik at ere.

J. Intxaustik adierazten digu labur-labur, goian aipatutako lanean, horretaz dagoen bibliografia (133-136. orr.), baina XX. mendekoa adierazten du ia soilik, eta zehazkiago esateko, gerra ondorengoa.

Elizaren kultur ekintzaz ari garenean, ongi bereizi beharra dago, elizako pertsona horiek eliz erakundeen laguntzaz jokatzaren duten ala pertsona partikular gisa eurek eurretara, eliz erakundeak kontutan izanik, kontutan izan gabe ala hauen borondatearen kontra. Jakina denez, historian zehar guztietarikoak ditugu.

Hurbileko historiara begiratuz gero, euskal kulturaren eragile gisa, elizako pertsonen burututako lana ikusten dugu.

Kultur erakundeak sortzen ahalegin handiak egin ziren; orain emaitza oparoak ematen ari diren kultur talderik gehienak elizako pertsonen ekintzatik sortuak dira; haietariko asko, monastegi eta parrokien babespean. Hau argi nabari da garai zailetan sortutako aldizkarien jatorria begiratuz...

Ia guztiak dira elizgizonengandikoak; eta aldizkari horietan haiek egindako lana garrantzi handikoa izan zen. Irrati eta argitaletxeak ere aipa genitzake. Eta ezin ahaztu Elizaren eskolak ere; hauek, Frankoren diktadurapean, hain kaltegarri gertatu baziren ere euskal kulturarentzat, geroago, kultura hori eraikitzen aitzindarien artean agertzen zaizkigu, baina hasieran ia beti elizgizon nahiz emakume finen eraginez.

Euskal literaturara begirada bat botatzea aski da oraintsu arte gehien-gehienak elizako jendea zirela konturatzeko. Eta ez literaturan soilik, beste zientziei buruz ere, esaterako, historia, fisika eta kimika eta abarri buruz ere, euskaraz idazten dute... Izenak aipatzen hasiz gero, luzeegi eta desegoki joko luke aurkezpen bibliografiko labur honetan.

Egia haxe da: liburu eta aldizkarien argitarapenaz oraingo egoerari bultzada eman ziotela.

b. Euskara

Hain zabala den euskal kulturaren barnean, hizkuntzak arreta berezia merezi du, herri-kulturaren adierazpenik sendoena delako.

1. Hizkuntza jazartua, baina Elizak babestua

Guztiok dakigu euskararen historia, legez onartua izan arte, gurutz-bide bat izan zela. Bi kulturaren erdian, frantsesaren eta espainolaren mendea, bai legez eta bai egotez; indar eta ahalmen guztiak euren alde zituzten bi erraldoien azpian.

Herri-aginte eta erakundeen gidaritzapean, euskarak historia latz eta luzea izan du, batzutan isiltasunaren mesprezua jasanik, beste batzutan gaztelania eta frantsesaren nahitaezko ezarpena, eta beste batzutan jazarpen legal eta soziala jasanik.

Egoera honen aurrean, beste hizkuntza eta kultura asko galduak direlarik, euskarak nola iraun duen azaltzeko ikerketa soziologiko eta zientifikoak beharko genituzke.

– [Elizaren laguntza unerik zailenetan]:

Euskara eguneroko bizitzan erabiliz gainera, esaterako, liturgian, predikuetan, kristau ikasbidean eta abarretan, geroago ikusiko dugunez, unerik larrienetan, inongo erakunde zibil eta laikok, ez publikok eta ez pribatuk inolako babesik eskaintzen ez ziotenean, Eliza izan da euskararentzat gordeleku bakarra. Hona bi adibide: Iparraldean, Frantziako Iraultzak, bereziki XIX. mendeko azken urteetan eta XX.eko lehenengoetan, euskara galtzeko urrats tinkoak eman zituenean, ia ez zuen kontrako indarrik edo erresistentzia zibilik somatu eta herri-erakunde laikoak, adibidez, irakaskuntza eta aginte politikoetan zeudenak erraz makurtu ziren estatu laikoaren esanetara; Eliza izan zen kultur genozidioaren aurka jarki zen bakarra; Elizak, bere apaizak buru zirela, euskarak bizirik iraun zezan herriaren erlijio eta eliz bizitzan, predikuetan, kristau-ikasbidean eta abarretan. Estatuaren enbata horren aurrean, Eliza bere apaizekin ia bakarrik gelditzen da euskararen denfentsan.

Beste horrenbeste gertatu zen Hegoaldean Frankoren diktadurapean: diktadura horrek erakunde publiko guztiei, bai laikoei eta bai erlijiosoei bere lege zapaltzailea euskararen aurka ezartzen dienean, irakaskuntzan batez ere gaztelania indartuz, or-

duan ere elizako pertsonak dira komentu eta parroketatik, euren argitarapen eta argibideen bitartez, euskararen aldeko mugimendu indartsua sortuko dutenak, 60. urteaz geroztiz nabari zenez.

– [Ikerketa eta bibliografiak]

Eliza eta Euskara, hizkuntzaren egoera larria gaitzat dituzten dibulgaziozko hainbat ikerketa ditugu. 1936ko gerratearen aurretik ere agertu ziren lan batzu, baina gerrate ondoren agertu ziren lanik gehienak, 70.eko hamarkadan batez ere.

2. Euskara Elizaren bizitzan

Euskal Herrira kristau-erlijioa sartu zenean eta ondorengo mendeetan, erromatarkuntza politiko-zibila nagusitu eta gero, kultura indartsuek euren legea ezarri zuten. Eliza, bai Frantzian eta bai Espainian, erromatarkuntzari loturik zegoen, eta benetan euskalduna zen aginte autoktono zibilik, adibidez Nafarroako Gortean, ez zegoenez gero, euskara ez zen hazi eliz erakundeetan, hauek ere erakunde politiko-zibilen itzalean zeudelako; alabaina beste gauza bat zen herriko egoera.

Hala ere Trentoko Kontzilioaz geroztik, eta protestanteek tokian tokiko hizkuntzei buruz izan zuten jokaerak eraginik, agian, euskarak bultzada ikaragarria hartu zuen elizetan. Kristau-lkasbide edo kateximak argitaratzeari ekin zitzaion eta sermoigintza ere gehienbat euskaraz zen; eliz agintariak erlijioaren irakaskuntza euskaraz izan zedin saiatzzen ziren; horretaz bada aski dokumentaziorik. XVII. mendean jadanik dotrina eta deboziozko liburu ugari dira euskaraz. Eskeko Ordenak agertzerakoan eta bereziki Josulagunak jaiotzerakoan, euskarak indar handia hartu zuen sermoigintzan eta dotrinaren irakaskuntzan. Eta Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, liturgia euskaraz egin ahal izatea aurrerakada itzela izan da, eukaristi batzar asko euskaraz ospatzen bait dira.

Gasteizko euskal elizbarrutian, euskara dela eta, parrokuak izendatzerakoan, bazen sentiberatasunik.

Elizak, erakunde gisa, euskarari eman ohi zion laguntza (sermoigintzan, irakaskuntzan, liturgian) erabakiorra izan zen,

herriak bere hizkuntzari eusteko eta estimu handitan izateko. Erakunde politiko-zibilek ez zuten beste horrenbesterik egin. Errealitate hau ez da ahaztu behar historia idazterakoan eta gizartearen euskararekiko portaeraz eritzia ematerakoan.

Liturgiaz hitz egiterakoan, itzulpenak ere gogoratu beharra dago, ez liturgi liburuenak soilik, baita Bibliaren itzulpenak eta horrek izan dezakeen eragina ere.

Elizak euskararen alde egin duen guztia, elizako gizon eta emakumeen argitaratze-lanak, Elizak euskarari eman dion bul-tzada literarioa eta garapen zientifikoa kontutan izanik, ez da zuzena pertsona politizatu batzuk Elizaren aurka egin ohi du-ten gaitzespena, honek euskarari egin omen dizkion kalteen-gatik. Honako hau galdetu beharko genuke: Elizak bere gaie-tan eta gai orokorretan euskara landu duenez, gainerako talde laikoek, politikari, zientzilari, abokatu, matematikari, irakasle, kazetari, historialari eta abarrek, nork bere arloan, hark egin duenaren zatitxo bat egin izan balute, nolakoa izango ote litza-teke egun euskararen garapen zientzifikoa? Zentzu onak ikus-pegia orokor eta zabala eskatzen du pertsonen eta taldeen por-taerak historian zehar epaitzerakoan.

3. Argibide metodologiko batzu

Euskararen historia zehatza egin eta Elizak harekin izan duen jokaera azter dadinean, gauzatxo batzu izan beharko dira kontutan; gauza erraz eta normalak, baina sarritan ahaztu egi-ten direnak; horregatik lan horien balio historikoa zeharo mu-rrizturik gera liteke. Ikuspegi historiko zehatza exigitzen da.

Esate baterako, Eliza nahiz haren ordezkarien lana gaitzes-ten denean, hark gizartearekin zerikusirik ez balu bezala epaitzen da: beraz, une historiko horiek nolakoak ziren az-tertu behar da, gainerako erakunde zibil edo laikoen jokie-rak nolakoak ziren, ea, garai berean, gainerako erakunde zi-bil edo laikoen jokaerak ez ote ziren kaltegarriago euskara-rentzat. Gizartea oso-osorik eta bere une historikoan aztertu

behar da, erakunde batzu beste batzuren menpeko direla kontutan izanik. Horrela izan dezakegu soilik eritzi zuzena, Elizak euskararekiko izan duen portaeraz. Eta erizpide horrek berdin balio du Elizaren alderdi ona edo positiboa aztertzerakoan ere.

Egia esan, Elizaren ekintza aztertu eta han-hor-hemen barreiatu-rik dauden datuak kontutan izanez gero, berdin-berdin idatz daiteke *liburu zuria* nahiz *liburu beltza* Eliza eta euskararen gai-az; izan ere, datuak kontaezinak dira eta Elizak euskal kultu- rarekiko agertzen dituen argi eta ilununeak ere kontaezinak.

Baina historia bere osotasunean aztertu behar da, ez zatika, garai bakoitza bere zertzelada eta parametroetan. Eta epaitze- rakoan estamentu guztiak, gizarte osoa, haren pentsaera eta ohiturak kontutan izan behar dira.

Gogoan izatekoa da Elizaren eta Estatuaren estamentuen ar- teko menpekotasuna, ondorio guztiekin; esate baterako, apez- piku-aulkietarako izendapenak egiterakoan, Estatuak bere bo- rondatea ezarri izan dio garai batzutan Elizari; adibidez, Iruñe- ko aulkian, nafar apezpikurik egotea eragotzi egin du hainbat mendetan Estatuak arrazoi politikoengatik... Gauza bera gertatu izan da beste apezpikutegi eta beste eliz kargu batzuri buruz ere. Horregatik ez da harritzekoa elizako buruetariko batzuri euskarak bost axola izatea; Gizarte laikoa zen Elizan euskal kulturaren aurkako gaitza zabaltzen zuena. Antzeko zerbait bizi izan dugu XX. mendeko gerra ondoren ere. Horregatik galde dezakegu: gaitz hori nondik sortua da, kristau komunitatearen barnetik ala gizarteko estamentu laikoengandik?

JULEN URKIZA